

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA: B GUTUNAZALEN IREKIERA

Espedientea:	Espediente zk.a.: 2026KOPR0007 Kontratazioaren xedea: Askagain - Gorlako kantiaren ustiapenaren kontratazioa
Eguna:	10/07/2026
Ordua:	11:30
Bertaratuak:	<u>Presidente:</u> Ainhoa Lete Zabaleta, Bergarako Udaleko Alkatearen ordezkaria <u>Bokalak:</u> Xabin Juaristi Arrieta, Bergarako Udaleko Idazkaria Ainhoa Larrañaga Berriozabal, Bergarako Udaleko Kontu-hartzailea <u>Idazkaria:</u> Aritz Oteiza Lasagabaster, Bergarako udaleko Kontratazio Teknikaria
A gutunazalaren edukia onartzea	“A” fitxategi elektronikoa kontratazio teknikariak bulegoan ireki eta lizitatzailerak aurkeztutakoa mahai gaineratu du. Honakoa onduztatu du: - Griselda Llada Vera (54****80Q): DEUC-a eta I.Eranskina aurkeztu ditu. - Eva Lanzos Romero (72****52V): NAN zenbakia, nomina agiri batzuk eta idatzi bat aurkeztu du. Ez du DEUC-a aurkeztu, ezta I.Eranskina ere. Idatziazi dagokionean, honakoak adierazi ditu (laburbilduta): ○ Udalarekiko izan dezakeen zorraren harira, adieraztea dagokio ez dela fase honetan egiaztatuko zorrik duen edo ez. Dena den, adjudikazio-hartzaile baldintza da. Egiten duen proposamena ulerkorra ez bada ere, ez dagokio Kontratazio Mahaiari horren inguruko erabakirik hartzea. ○ Abuztuaren 10etik 16ra bitartean ez irekitzearen inguruan, esan beharra dago ez dagokiola Kontratazio Mahaiari horren inguruko erabakirik hartzea. Horiek horrela, Kontratazio Mahaiak erabaki du Eva Lanzos Romero (72****52V) andreaki hiru egun balioduneko epea ematea DEUC-a

	zuzentzeko, adierazita beteta aurkeztu ezean lizitaziotik kanporatua izango dela. Halaber, kontratazio mahaiak adierazitakoen berri ematea ere erabaki du Kontratazio Mahaiak.
--	--

Hamabiak laurdengutxi direnean, lehendakariak amaitutzat eman du irekitze-ekitaldia, eta nik, idazkari lanetan egon naizen honek, hori ziurtatzen dut.

Sinatuta: **PRESIDENTEA**

Sinatuta: **IDAZKARIA**

